

EZKONZA NASTUAK

I. GOIKOETXEA

(BUKAERA)

Burubide berria ezkontza nastuei buruz

LEGEA TA TEOLOJIA

Galdetu ditek, ezkontza nastuei dagokionez, Lege kanonikoa argitara ezkerzoko katolikoan irizpidea izateko ta teologiko onarrietan ondo sendotua ote dagon. Izan ere, eskotan aztu egiten da ezkontza ezatala Bataio ta Eukaristi sakramentuen balio ta adierazkizun berdinak; gainera Elizak ezta beiere itzez itz esan ezkontza sakramentua «Elizan» egin bear danik, ain zuzen ere ezpaita Eliza sakramentu au egiten duna (lekuko da bakarrik), ezkontideak berak baizik. Beraz, teologoak dute ontan zer esana, esan ere esan dute teoloji aldetik ezatala eragozpenik protestanteak diotena ontzat artzeko, alegia apaiz katolikoa aurrean egon gabe egiten diran ezkontza nastuak balioudun dirala, naiz ez-bidezko edo ez-zillegi izan.

Gaurko egunotan, teologo batzuk ikusmira berri baten argitan jarri dute ezkontza nasuen azuia. Oietako bat Aita Congar da; beronek dionez, olako ezkontzak «biotzaren erdi-erdian ikutzen dute Eliza, onen egitamu diran osagai bietan, sakramentuetan eta fedean, alegia». Gainera, protestante-aldekoaren karidade ta zindotasunari zor zaion begiramenez, bestelako irizpide au azaltzen du: Elizaren lege zorrotrak eginbear gogorra ezartzen duela protestante-aldearen gain, alegia, Izan ere, protestante batek, egiazko baldin bada beintzat, nola izi eman dezake bere anarrak erlijio katolikoan aziko ditula, aldi berean bere aurrean azierako zer-ikusirik mamienari uko egin gabe? Olako lege zorrotrak ez ote ditu ezkontideen alkarmaitasuna ta elkarte arrisku aundian ematen?

Au dala-ta, katoliko ta protestante askoen artean lege kanonikoa bigunduko dalako itzaropena mamitu egin da. Orrengatik, Konzilio aurretik, maiz ta alderdi guzietatik adierazi da itzaropen au. Jaink izan da ere auzi au Konzilioko Eliz-Guraso, teologo ta kanonistak aintzat artu dutela; areago, Sakramentuen Teogintzako Batzordeak auzi au Konziliora aurkeztu ditun eskema artean ezarri duela. Ori bera gertatu da Bataio-rako Ordezkaritaren eskematan.

Dana dala, zenbait kanonistek oraingo legea puntu batzuetan lasatu ditekela diote. Orrela, auek diotenez, ezkontideak beren imeak oro erlijio katolikoan bataio ta azitzeko egin bear duten itzemanu kendin omen ditek; eta, orren ordez, ezkontide katolikoari sinismen-eginbearrak eta Elizarekiko menpetasuna aintzat artu di-

tzala arduraz eskatuko zaioia. Bestetik, protestante-aldea aisago senti dedin, berarizko elizkizunen bai autatu ditekela, Eta, azkenik, apaiza lekukoizat artu gabe egindako ezkontza nastuak, naiz ez zillegi izan, baliouduntzat artu ditzakela Eliza katolikoak.

BI MILLA MINA-GIZON PARIS'ERA

Lorena'ko minetako bi milla huelgagille Paris'era joan dira, Gobernuarekin antolaketa batera iritxi naian, eskatuta duten lan-sari aunditzeaz. Lorena'ko langileok burri-ateratzailleak dira eta ikz-ateratzailleak ontzat eman zaion euneko amaikako geiagoketa eskatzen dute. Amalau eguneko huelgaren ondoren Gobernu eta langileak eztera alkarrekin moldatu.

AITA SANTUAREN DEIA GOSEAREN KONTRA BORROKATZEKO

Joanes XXIII garrenak borondate oneko gizon guztiei dei bat egin die, alegiñak egin ditzatela, artarako bear diran neurriak artuaz, munduko gosearen kontra borrokatzeko. Aita Santuak FAO'ren izenean joandako 33 jakintza-gizonen aurrean egin zuen bere itzaldia.

BOSTON'GO «LEPO-EGILLEA» REN AMARGAREN ILGAI

Belmont deritzan urian, Boston'go errialden, emakume zahar bat arkitu dute «depo-eginda» —estrangulatu— bere etxean. Bessie Goldberg deritza eta joan den Garagarrilletik tankera ontan ildako amargarren emakumea da. Poliziak dienez Goldberg andreari sedazko galtzerdi batekin lepo egin zioten. Illotza bere senarrak arkitu zuen lanetik etortzean.

ERRUSITAR TEKNIKUAK CUBA'TIK ATERTZEN ARI DIRA

Lau itxas-ontzi errusitar La Habana'tik atera dira tekniku sobietikuz betetik. Beste bosgarren bat 4.000 gizon geiagorekin aterako omen da. Ikusten denez, Kruhchev, Kennedy'ri egin zion agintza betetzen ari da.

MENENDEZ PIDAL'EK 94 URTE BETE DITU

Gaztelar ikuntzaren Akademiaburu den Ramon Menéndez-Pidal jaunak 94 urte bete ditu Epailaren 13'an eta urtero bezala bere despaxuan lan eginaz eta zoriaak ematera joandako adiskideak errebituz ospatu du. Beste bixita askoren artean, Madrilleko Galiziar-Etxearen Zuzendaritzarena jaso zuen.

KRUSCHEV PEKIN'ERA?

Azkeneko berriak diotenez, Mao Tse Toung'ek inbitazioa bialdu omen dio Kruhchev'i Pekin'era joan dedin. Diotenez ere, Mao Tse Toung'ek onartuko omen luke orain, mundu guziko partidu komunisten batzar nagusi bat, maiz-ta gaurdario orren kontra egon, Txina'ko diktadoreak eskatzen baitzien erusitarrei lenengo Yugooslavia'rekin artu-emanak urratzeko eta Albania'rekin adiskidetzeko. Beraz, ba-dirudi errialde komunista beren arteko asarreak baztertu nai ditzatela eta ortz komunisten indarra gogortuko litzake Sartaldetarren kontra erabiltzeko.

BASTIEN-THIRY AFUSILATUA

Frantzia'ko «Indar-Armatuzko Ministerio»tik berri au eman dute: «Errepublik»ko Presidenteak gaitzetsi ondoren

ERDI SORTALDEKO ZALAPARTAK

ARREGI'TAR RIKARDO'K

Sortaldea, iparrari begiratu ezkero gu-re eskubian gelditzen da. Erdi sortaldea berriz, urrutikoari ez ezik erdi aldekoari deitzen diogu, au da, arabetar erriek. Euzkizia ta petroleoa ugari. Ta baita era zalaparta galantak. Zer gertatzen da? Galdera au egitea baño ohea da zergatik

ESTADUEN ELKARTASUNA

gertatzen dan galdetza. Jakina, gauz guztietan bezela, gauz bat bakarragatik ez ezik, gauz askogatik gertatu oi dira. Bizkor bizkor begiratu bat eman dezaigun.

ESTADUAK

Turkia, Iran edo Persia, Egipto, Siria, Yemen, Sauditar Arabia, Jordania, Libano, Irak, Koweit, Israel eta Ingalaterran menpean dauden beste sultanatu batzuek.

Oetatik Turkia ta Persia okzidentean menpean, edo obeto esateko, okzidentean alkatuak daude. Jordania ere bai. Okzidentetik geiena artu duana Turkia da, eta demokratuana dagona ere bai. Turkia ta Persia arabe errietatik alde xamar bizi dira, Errusierekin mugak daukate, eta erdi sortaldeko periferikoak diradela esan genezakegu.

Jordania ta Sauditar Arabia, Koweit ere bai, erregen menpean bizi dira. Lengo lege zarrari eusten diotenak, eskubikoak esan genezake. Egipto ezkerrekoen buru ta gidari, nola alabai bere antzera Irak, Yemen eta Siria (batez orain, azken aldi ontan izan diran zalapartekin).

Libano komertzialen erri bat. Nasketak aundiko erria. Errazez arabetarrek, bafian batzuek kristauak (ortodoxoak, katolikoak) eta beste batzuek mahomatarrek dira. Erri Txikia.

Erri guzi oien artean Israel dago; Arabetarrek diotenez istillu guzien iturri, inola ere ezin eman duten erria ta estadia.

POLITIKA TA ISTORI APUR BAT

Erri guzi oiek 1919'go. urte arte Turkiaren menpean egon ziran. Orduan oraindik Turkiar sultanak agintzen zuten. 1914-1918'go. gudan Turkiak Alemaniarekin jokatu zuan. Orregatik Ingalterriakoak, Turkiaren mendeen zuden erri guzi oiek arren kontra altxa erazi zituan. Guda bukatu eta ta Alemania ta Turkiak galdu egin zuten. Orduan Turkiaren mendeen zuden erriak Ingalaterraren kuetara etorri ziran. Siria ta Libano Frantziarrena. Alde batetik erri aberatsak, petroleoa ugari dutelako, ta bestetik Suezko kanala, garantzi aundiko kanala ere au dago. Europatarrei ta batez ere Ingalaterrari erri egi zaituak egotea ta indar aundi gabekoak izatea komeni zitzaion Ortarako ezerezetik ari komeni zitzaion eran estadu batzuek sortu ta bere esana aditzeko prest zuden erregeak jarri zituan agintzen. Batez ere Jordanin ta Iraken. Ta Arabiko peninsularen bera aldiari zati batzuek bereganatu egin zituan proketo-radu gisan. Oraindik Israel estadu sortu gabekoa zan. Arabetarrek ziran an bizi ziran geienak.

Gauzak orrela jarraitu zuten 1945'ko. guda bukatu arte. Ordu ezker estadu bakoitzean gertatutakoak izan ditzagun.

Egipto: Frauk erregea bota ta Errepublik jarri zuten. Zalantza batzuen ondorean Nasser jarri zan lendakari. Ingalaterran an zeuzkan gudari guztiak bidali egin zituzten. 1956'go. urtean Suezko kanala bereganatu zuten Ortatik guda sortu zan Frantziarekin ta Ingalaterrarekin banan azkenian Ipar Amerikak eurobearen kontra jokatu zutelako, Nasser kanalarekin gelditu zan. Andik pixta batera Siria ta Yemenekin R. A. U. izeneko alkartasuna sortu zuan. Banan azkenian Siriarrak alkartasun au autsi egin zuten. Orain damutu ta dabilzala dirudi ta zerbait konpondu naiean. Ortzen daukagu azkeneko zalaparta. Nasser da gauz askotan arabetaren gidari. Alde batetik sozialista porrokatua ta bestetik aberzale bero beroa. Arabetar guztiak, bera endari dutela, batu nai dugu ta orrela munduan paper aundi bat jokatu.

BERRIAK

grazi-eskabidea, Bastien-Thiry afusilatua izan da Epailaren 11'ko 6-40'tan. Bastien-Thiry teniente-koronelak 35 urte zituen eta Divry-ko fuertean —Paris'tik urbil— izan da lepotua. Aste bete lenago eriotzera kondenatu zuten.

ERRUSIA'K IPAR-AMERIKA SALATU

«Mosku-Irratia»k dionez Ipar-Amerikatako bi kruseruk eta destruktore batek su egin zioten erusitar arrantza-barku bati Virginia'ko kostan epailaren 8'an. Soviet' en Gobernuak Ameriketako Estadu-Alkatuei bidalitako protestaren agiria («Zvestia»k argitaratu du eta beronek dionez gertakizuna Norfolk'eko portutik 70.000 mila sortaldera izan omen zan, erusitar barkua arrantza lanean ari zelarik.

FARAH DIBA ENPERATRIZAK NESKA BAT IZAN DU

Farah Diba Iran'go Enperatriza aur batez erditu da Teheran'go enperadore-jaurregian. Korteko txanbelanak era ontan eman zuten jaiozaten berri: «Jaungoikoa»ren grazia, Farah Enperatrizak neska bat ekarri du mundura arratsaldeko bost tertietan». Bai ama eta bai aita jaioberria osasunez ongi arkitzen omen dira.

OAS'EK THIRY'REN ERIOZTA ODOLEZ ORDAINDUKO

Periodikutara eta albiste-ajentzitarra Oastarrak bialdutako orritxo batzuetan, iragaritzen dute auek, «Bastien Thiry» izeneko talde bat sortua izan dela, Frantzia'ko Gobernuak lepotu duen teniente-koronel onen eriozta mendekatzeko.

KENNEDY VATICANO'RA DATORREN GARAGARRILLEAN

Kennedy lendakaria, Filadelfia'ko lenengo artzobispu izandako Jan Nepomuceno Newman'en beatifikazioa joango da, datorren Garagarrillean Erroma'ra egingo duen txangoan.

FISKALAK BOST URTEKO BARRUOLDA ESKATZEN RIBADELAGO'KO AUZUPETUEI

Ribadelago'ko presa austearren azuia bukatu da Epailaren 16'an. Fiskalak bost urteko barruoldi txikia eskatzen du amar auzupetuentzat, konsideratzen baitu presak etziola urten bultzakadari eutsi ahal izan, txarki egina zegoelako. Defentsak, berriz, salatuak libre uztea eskatzen du, konsideratzen baitu, auster, mundu guzian onartua den uestegite tekniku baten eruz gertatu zela. Auzi onen epaia datorren astean emango da.

43 ERIOZT ESKABIDE BURGUIBA' REN IL-SAIOGATIK

Tunex'ko Erri-Ministerioak 43 eriozt-eskabide egin ditu —salatu guziena, alegia— Burguia presidentearen azken Abenduko il-saioan konplikatu zuden onen kontra. Erri-ministerioak Epaimaikoen irizipean utzi du salatu batzuentzako beragarri izan ditezkeen nolatasun edo zirkustantziak aztertzea.

ZUZENDARITZA	BANATZAILLEA
Oquendo, 22	Cuetaria, 5-2.º-3
Tel. 11284	Tel. 10644
San Sebastián	
SARIAK	
ESPAÑA'N	
Urtekoa (1963)	110— pezta
Sel ilabeteakoa	65— "
Iru ilabeteakoa	3250— "
Ale bakarra	250— "
ATZERRIAN	
Europa	150— "
Beste erriak	200— "